

## UDALAREN OSOKO BILKURA

### Bilkuraren akta

Ohiko bilkura

**Eguna: 2021eko maiatzaren 12a, asteazkena.**

**Ordua: 20:00.**

2021eko ekainaren 9ko bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: inor ez.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bilkuran izan da, idazkari gisa.

Saioa alde zuzenetik eta arauzko publikitatearekin deitu da, eta honako hau izan da gai-zerrenda:

#### Gai-zerrenda

1. Onestea 2021eko apirilaren 14an eginiko aurreko ohiko bilkuraren akta.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea**
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea**
5. **Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea**
6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea**
  - 6.1. Oiongo Hiriguneko Birgaitze Integralerako Plan Bereziaren 1. interpretazio ebazpena.

#### **Azken puntua) Galde-eskeak**

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorriz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

#### **1. Onestea 2021eko apirilaren 14an eginiko aurreko ohiko bilkurako akta.**

Alkate-udalburu jaunak aktari oharririk egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharririk egin.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2021eko apirilaren 14ko aurreko ohiko bilkurako akta, egindako oharrekin.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Abstentzio 1 (bat): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV).

Zinegotzia abstenitu egin da bozkatzen ari den aktako osoko bilkuran ez zelako egon.

## **2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.**

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki, aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenen berri: 64/2021 eta 91/2021 bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

## **3. Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea**

## **4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea**

## **5. Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea**

## **6. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea**

### **6.1. Oiongo Hiriguneko Birgaitze Integralerako Plan Bereziaren 1. interpretazio ebazpena.**

Aurrekariak:

1. Goi-mailako arkitektoak idatzitako BIPBren 36.4 artikulua (OI/21/093 erreferentzia) interpretatzeko txostena. Ondorioa 1. xedapen-zatian transkribatzen da.
2. Arabako Hirigintzako Plangintzaren Administrazio Erregistroa sortu eta arautzen duen otsailaren 17ko Diputatuen Kontseiluaren 14/2009 Dekretuaren 11 d) artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da.
3. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Informazio Batzordeak maiatzaren 5ean eginiko bilkurako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Harri naturalaren eta krema, okre nahiz lur koloreen kasuan, 36.4 artikuluan (eraikuntza-elementuak), 2. puntuko (trinkoak) C letran (kolorea) interpretazio-ebazpena egitea honako edukiaren arabera:
  - I. 36.4 artikuluan (eraikuntza-elementuak), 2. puntuko (trinkoak) C letran (kolorea) aipatzen diren “krema, okre, lurrak” termino orokorrak honako erreferentzia hauek izango dituzte baimendutzat:

RAL sistematik 1000, 1001, 1002, 1003, 1004, 1005, 1006, 1007, 1012, 1014, 1017, 1018, 1021, 1023, 1028, 1032, 1033, 1034 eta 1037 erreferentziak.

PANTONE sistematik, PMS 100, 101, 102, 106, 107, 108, 109, 113, 114, 115, 116, 120, 121, 122, 123, 127, 128, 129, 134, 135, 136, 141, 142, 143, 1205, 1215, 1225, 1345, 1355 eta 1365 erreferentziak.
  - II. Toki batean lagina margotzen denean, baimen daitezkeen tonuak zehaztea. Tonuak honako hauek dira: RAL 1011, 1015, 1016, 1024 y 1027. PMS 124, 130, 1035 eta 1375.
- 2) Oiongo Hirigunearen Birgaitze Integralerako Plan Bereziaren testu bateginean 1. eranskin bezala planaren bertsio osoa eta eguneratua (2018ko azaroaren 14an onetsi zen) sartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen

107.1 artikulua xedatutakoarekin bat etorri. Bertsioak planak izandako zenbait aldaketa puntual ditu, eta, gainera, kartografia eguneratzen du. Iragarkia 2018ko azaroaren 19ko ALHAOn (133. zk.) argitaratu zen.

- 3) Interpretazio-ebazpenaren testu osoa ALHAOn argitaratzea. Halaber, iragarkia probintzian gehien irakurtzen diren egunkarietakoren batean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea.
- 4) Arabako Hirigintzako Plangintzaren Administrazio Erregistroan inskribatzeko eskatzea.

Aldeko 11 (hamaika) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Eva María Frías del Val (Eh Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

### **Azken puntua) Galde-eskeak**

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Galdetu du noiz eskatu zuen obra eta zerbitzuetako arduradunaren lanpostua betetzen duen pertsonak lanpostu hori berriz betetzea eta lanpostua betetzeko egutegirik dagoen.

Alkate jn.: Urtarrilaren amaieran. Ez dago egutegirik. Pandemia dela eta, zailtasunak ditugu. Hasieran, hutsa ofizialen poltsan lehen tokian dagoen pertsonak beteko du.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): EPE brigadako ofizialentzat egin zen. Ez zait arrazoizkoa iruditzen. Zentzuzkoagoa da ofizialen barruan puntu gehienak lortu zituenari eskaintzea. Arazoak egon daitezke, ofizial batek txikikeriak eragin baititzake.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Ez da arrazoizkoa lanorduetan ikastea. Ez du zentzurik atezainaren zereginetan enplegu-planerako kontratatutako pertsona aritzea.

Alkate jn.: Idazkariari eskatuko diot azal dezan ordezkapenatarako zerrendaren indarraldia eta eremua.

Idazkari jn.: 2019ko apirilaren 5eko alkatetzaren ebazpenak ofizialaren lanpostuen barruan aldi baterako kontratazioaren zerrenda nola eratu arautzen du eta modu subsidiarioan aplikatuko zaie langile lan-kontratadunen lanpostu guztiei, Batxilergoa eskatzen ez bada. (Ebazpena transkribatzen da)

Aurrekariak:

1. Zerbitzu anitzeko ofizialaren bi (2) plaza betetzeko prozesua arautzen duten oinarriak (2018ko ekainaren 29ko ALHAO) eta berariaz hamaseigarrena.
2. Negoziazio-mahaiak 2019ko martxoaren 11ko bilkuran langile publikoen baldintzei buruzko proposamena. Hitzez hitz hala dio:
  - 1) Aldi baterako kontratazioaren zerrendan hautaketa-prozesuaren ariketa guztiak gainditu ez dituzten pertsonak sartzeko honako ordenari jarraikiz:
    - I. 2. ariketa gainditu duten hautagaiak.
    - II. 1. ariketa gainditu duten hautagaiak.
    - III. 1. ariketako 1. zatia gainditu duten hautagaiak.
    - IV. 1. ariketako 1. zatia gainditu ez duten hautagaiak.
  - 2) Aldi baterako kontratazioaren zerrendak Oyón-Oiongo Udalak 2015eko maiatzaren 6ko alkatetzaren ebazpenaren bidez onetsitako zerrenden araudiak araututako aurreko poltsa ondorerik gabe utziko du, eta ikastetxe publikoko atezainen lanposturako langileen aldi baterako zerrenda ondorerik gabe geratuko

da. Hori ere Batxilergorik eskatzen ez duen langile lan-kontratudunen lanpostua da.

- 3) Poltsa hau zerbitzu anitzeko ofizialaren bi (2) plaza betetzeko prozesuaren hamaseigarren oinarriak (2018ko ekainaren 29ko ALHAO) arautuko du, eta aurrez ikusten ez denerako 2015eko maiatzaren 6ko araudiari erreparatuko zaio.

Hori dela eta, hau ebazten dut:

- 1) Onestea ofizialaren lanpostuen barruan aldi baterako kontratazioaren zerrenda arautzen duen araudia, eta modu subsidiarioan Batxilergoa eskatzen ez den langile lan-kontratudunen lanpostu guztiei aplikatzea.
- 2) Zerbitzu anitzeko ofizialaren bi (2) plaza betetzeko prozesuaren hautaketa-probetara aurkeztu diren pertsonekin aldi baterako kontratazio-zerrenda egitea honako ordenari jarraikiz:
  - I. 2. ariketa gaingitu duten hautagaiak eta izendapen-proposamenean praktketan langile lan-kontratudunen titular gisa sartuta ez daudenak.
  - II. 1. ariketa gaingitu duten hautagaiak.
  - III. 1. ariketako 1. zatia gaingitu duten hautagaiak.
  - IV. 1. ariketako 1. zatia gaingitu ez duten hautagaiak (puntuen hurrenkeraren arabera).
    1. Iragarkia Udaleko web atariak argitaratzea eta eragindakoei jakinaraztea.

Alkate jn.: Hutsak ofizialaren lanpostuen barruan aldi baterako kontratazioaren zerrenda arautzen duen araudiak (2019ko apirilaren 5eko ebazpenaren bidez onetsi zen) xedatutakoaren arabera beteko dira, eta modu subsidiarioan Batxilergoa eskatzen ez den langile lan-kontratudunen lanpostu guztiei aplikatuko zaie.

Alkate jn.: Zerrenda hori erabili da ikastetxeko atezainaren hutsa betetzeko. Gaur egun atezainaren lanpostua betetzen duen pertsona ebakuntzaren ondorioz baja hartuta dago. Ez du enplegu-planeko pertsonarik ordezkatzeko. Enplegu-planeko langile batek atezainaren lanpostuko zeregin jakinak egiten ditu; beste botzuk, berriz, ofizialek eta brigadako arduradunak egin dituzte. Sindikatuak erreklamatu ondoren, poltsan inskribatutakoei deitu zitzaion, eta guztiek uko egin dute lanean ari direlako.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Ludotekako zerbitzuko monitore guztiak elebidunak (euskara eta gaztelania) izateko eskatu du.

Eslava Guillerna and.: Oiongo bi monitorek, helduenek, ondo erabiltzen dute euskara eta haurrei tratu bikaina ematen diete.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Enkante judizialaren bidez erosi zen finkan obrek jarraitzen dute. Eta, dirudienez, igerilekuak ura du, baina ez da kendu.

Alkate jauna: Hirigintzako arau-haustearen espedientea izapidetuko dugu.

Villanueva Gutiérrez jaunak (Eh Bildu Oion) Partzuergoko batzarrari buruzko informazioa eskatu du.

Tarragona Elejalde jn. (EAJ-PNV): Bertaratutako guztiek estatutu berrien alde bozkatu zuten, Bastidak eta Samaniegok izan ezik. Horiek abstenitu egin ziren.

Villanueva Gutiérrez jn. (Eh Bildu Oion): Dirudienez, atxikipen-izapideari buruz Arabako Batzarkideen taldeak kontsulta bat egin du.

Inclán Gil jn. (PP): Arabako Popularren Batzarkideen taldeak informazioa eskatu du. Arabako Errioxako Ur Partzuergoak estatutuak aldatzeko izapidea hasi zuela jakin genuen, eta ez zen Batzar Nagusietako Ingurumen Batzordean landu, nahitaezkoa izan arren.

Frías del Val and. (Eh Bildu Oion): Torregiraldan litxarrerien dendaren ingurunea garbitzeko eskatzen dut.

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:45ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2021eko maiatzaren 28an.

Udaleko idazkaria:

O.E. Alkatetza